

2006-06-06ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta sei urteko ekainaren bederatzian, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Agustin Zubeldia Iraola, M^a Jesús Otaño Zumeta, eta Jose Luis Olano Zubeldia zinegotziak izan dira bileran.

Aitor Lasa Olalde, Eugenio Loidi Garmendia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak ez dira bertaratu eta ez etortzeagatik desenkusatu dira.

Ez dira bertaratu eta ez etortzeagatik desenkusatu ere ez:bat ere ez.

Idazkari-lanak Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek egin ditu.

Alkateak bilkura publikoa ireki du; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

1. PUNTUA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-05-09).

2006ko maiatzaren 9ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

2. PUNTUA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

-06/04/10ko 49/06 Dekretua: Udal-baimena ematea Miguel M^a Garmendiari ibilgailua garajera espaloitik sartzeko.

-06/04/28ko 57/06 Dekretua: frontoia ixteko obra likidatzea, 9.642,85€ko kopuruarekin.

-06/05/03ko 61/06 Dekretua: 37.510,56€tako apirileko fakturak onartzea.

-06/05/05ko 62/06 Dekretua: Luciano Lasari 156€tako dirulaguntza ematea San Isidro eguna ospatzeko.

-06/05/10ko 63/06 Dekretua: 110-E espedienteari etxez etxeko laguntza berezia ematea.

-06/05/15ko 64/065 Dekretua: 7-E; 97-E, 10-E eta 110-E espedienteen udal tasak ordaintzeko laguntzak ematea.

-06/05/15ko 65/06 Dekretua: M^a Carmen Gurrutxagari mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea.

-06/05/15ko 66/06 Dekretua: 97-E espedientearen etxez etxeko laguntza gehitzea.

-06/05/19ko 67/06 Dekretua: 16 zonaldean 6 etxebizitza eta garajeak egiteko exekuzio proiektua onartzea.

-06/05/23ko 68/06 Dekretua: Labein enpresa kontratatzea frontoien estalduretako patologien diagnostikoaren ikerketa lanerako.

-06/05/25ko 69/06 Dekretua: José Joaquin Ayerzari trakzio mekanikozko zerga ordaintzetik salbustea.

-06/05/25ko 70/06 Dekretua: Juan Galarraga Hueguni 1.803,03€ko fidantza

itzultzea.

-06/05/25ko 71/06 Dekretua: 97-E espedienteari ezinduentzako aparkaleku txartela ematea.

-06/05/26ko 72/06 Dekretua: Jesús de Pablos Roseteri "Tunning" bateratzea egiteko baimena ematea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

3. PUNTUA

ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN AURRERALDIAN 9 SEKTOREKO "ZABALGUNE" JABEKIDEEN HIRIGINTZA HITZARMENA.-

Aurkeztu da Irurako Arau Subsidiarioen Aurreraldian 9 Sektoreko "Zabalgune" jabekideekin izenpetu beharreko hitzarmena. Hitzarmen honen xedeak dira Lur Hirigarriko Sektore horretarako planeamendu orokorreko irizpide nagusiak finkatzea eta udalari egin beharreko ehuneko hamarraren irabazteko aprobetxamendua lagatzeko modua finkatzea.

-Lehenengo xedeari dagokionez, ondorengo irizpide nagusiak bete beharko dira:

- Lehentasuna duen erabilera:egoitza-gunea.
- Gehienezko etxebizitza kopurua: 300.
- Etxebizitza mota: 210sustapen askekoak eta 90 babes publikoko edozein jardunbidepekoak

-Bigarren xedeari dagokionez berriz, babes publikoko edozein jardunbidepeko 90 etxebizitza eraikitzeke lursailak guztiz hiriztatuak udalari lagatuz gauzatuko da. Horietatik %50 (45 etxebizitza), gutxienez, babes ofizialekoak izango dira eta gainentzekoak (45 etxebizitza) tasatuak.

Hori dela eta, udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Hitzarmen hori onartzea.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkate andrea ahalmentzea udalaren izenean hitzarmena izenpetzeko.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

4. PUNTUA

BEHIN BETIKO ONARTZEA, BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA.

Udalbatzak, 2005eko azaroaren 8an erabaki zuen hasierako izaerarekin onartzea Etxez Etxeko Zerbitzuaren Erreglamendua.

Ondoren, jendearen informaziorako gai ezarri zen 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri eta epe horretan ez da alegaziorik ezta iradokizunik ere aurkeztu.

Hala ere, udal honi hasieran onartutako testuan aldaketa batzuk egin behar direla iruditu zaio.

Kontuan hartu da ere gizarte langilearen txostena.

Hori dela eta, udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Behin betiko onartzea Etxez Etxeko Zerbitzuaren Erreglamendua.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

5. PUNTUA

ONARTZEA, BADAGOKIO, ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ETA BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA.-

Etkez etxeke zerbitzua emateko indarrean dagoen kontratua laster bukatzen denez, eta betez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2005eko azaroaren 30ean izenpetutako Hitzarmena, adostutako baldintza berrietara egokitzera behartzen duena, zerbitzua berriz kontratatzeke prozesua hastea dagokio orain.

Horren aurrean eta idazkari-kontu-hartzailearen txostena aztertu ondoren, udalbatzak zera erabaki du aho batez:

Lehena.- Onartzea, badagokio, etkez etxeke zerbitzua lehiaketa bidez eta prozedura ireki bidez kontratatzeke baldintza ekonomiko-administratiboek eta baldintza tekniko berezien agiria.

Bigarrena.- Dagokion gastua egiteko baimena ematea. Gainera baimentzea konpromisoa hartzeke, hurrengo aurrekontuetan kontratu honek eragindako gastuei aurre egiteko adinako diru-kopurua kontsignatzeko.

Hirugarrena.- Adjudikazio-espeditentia hastea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

6. PUNTUA

ONARTZEA, BADAGOKIO, TOLOSALDEA GARATZENI 2006 JARDUERARAKO EGIN BEHARREZKO EKARPENA.

Udalbatzak aho batez onartzea erabaki du Tolosaldea Garatzeni egingo zaion 6.446 €-ko ekarpena, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokiona.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

7. PUNTUA

2006ko URTARRILAREN 1EAN ZUZENDUTAKO BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN POPULAZIO ZIFRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez erabaki du, Biztanleen Udal Errolda 2006-01-01ra eguneratutako 1.192 biztanle kopurua onartzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, bertaratuek presako egoera adierazi zuten, eta 781 /1.986 Legegintzako Errege-dekretuaren 51. artikulua araberako korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa ordezkatzeko zuten, ondorengo gaia aztertu zuen udalbatzak:

8. PUNTUA

HIRIGINTZA-AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEA.

Alkatetzak ondorengo proposamena aurkeztu dio udalbatzari:

Udal honek Ignacio Echeverría Izagirre arkitektoa kontratatu zuen Irurako arau subsidiarioak berriz aztertzeko agiria idazteko aholkularitza lanetarako. Gainera bere lantaldea osatzen dute Easo E.M. bulego juridikoko abokatuek.

Lan hauez gain beste aholkularitza lan batzuk ere kontratatu behar ditu udalak, besteak beste, ondorengoak:

-Obra handiko lizentzien txostenak.

-Garapeneko hirigintzako plangintzaren inguruko ikerketak eta txostenak: xehetasun azterketak, azterketa bereziak...

-Hirigintza-hitzarmenak aztertzea eta egitea.

-Hirigintzako plangintzarekin eta bere exekuzioarekin zerikusia duen edozein gairen inguruko aholkularitza.”

Hori dela eta, ondorengo akordioa hartzea proposatu du alkatetzak:

Lehena.- Ignacio Etxeberria Izagirre eta Easo E.M. Bulego Juridikokoa kontratatzea goian adierazitako aholkularitza zerbitzuaz arduratzeko hirigintzako arlo tekniko zein juridikoei dagokionean.

Bigarrena.- Ordainduko zaie 59 € gehi BEZ egindako zerbitzu-ordu bakoitzeko.

Hirugarrena.- Kontratuak urtebeteko iraupena du, izenpetzen den egunetik, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, bi aldeek kontratua bukatu baino gutxienez hilabete lehenago hala erabakitzen badute.

Laugarrena.- Kontratu honek administrazioko izaera du eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legea den Testu Bateratuko 196 artikuluetan eta ondorengoetan erabakitakoak eta gainerako legeri aplikagarriak arautzen du.

Bosgarrena.- Alkate-Lehendakari andrea gaitzea kontratua izenpetzeko udalaren izenean.”

Hori dela eta, udalbatzak alkatetzaren proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Galdera eta eskarien aurretik ondorengo gaia aztertu zen, izan ere, presa zuela adierazi zuten bertaratuek aho batez eta hauek, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa ordezkatzan dute:

9. PUNTUA

ONARTZEA KALE BATI IZENA JARTZEA.-

Korporazioak aho batez erabaki du, KALE TXIKI deitza, Construcciones Aburuza S.A. eta Epergain S.L-k, Guibe enpresa zegoen lekuan eraikitzen ari diren bi edificioen artean sortutako kale berriari.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

10. PUNTUA

GALDERAK ETA ESKARIAK.-

Galdera eta eskarien tartean honako gaiak aztertu dituzte:

a) José Luis Olano zinegotziaren galderari erantzunez, alkate andreak Irurako Arau Subsidiarioak berriz aztertzeko agiri-sortan omen dagoen bidegorri baten ibilbide-proposamenaren xehetasunak eman zituen.

b)Alkate andreak udal bulegoetarako bulegoko altzariak erosteko jaso diren proposamenak aurkeztu ditu. Eskaintzak aztertu ondoren udalbatzak Ikasikoa aukeratu du.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:15ean amaitu da bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.